

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIA KIROLAK BENTABERRI, INTXAURRONGO ETA ETXADIKO GIMNASIOAK BERRITUKO DITU ABUZTUAN

Donostia Kirolak udal kiroldegietako gimnasioak berritzearen aldeko apustuarekin jarraitzen du, azken urteetan gehien erabiltzen ari den kirol guneetako bat baita. Gaur egun, Kirol Txartela-rekin gimnasioen 5.200m² erabilgarri daude.

Alde horretatik, dagoeneko esleitu da Bentaberri, Etxadi eta Intxaurren kiroldegietako gimnasioak berritzeko lizitazio publikoa, renting-aren formulari eutsiz. Renting-ak emaitza onak izan ditu Altzan eta Yoldin, eta bost urtean behin gimnasioak erabat berritzeko aukera ematen du, inbertsiorik egin behar izan gabe.

Bentaberri kiroldegia

Bentaberri Udal Kiroldegiko gimnasioan, 420m²-ko azalerarekin, pisu librea, entrenamendu funtzionala eta eremu kardiobaskularra duten lan-eremuak berrituko dira. Pisu libreko eremuan zoladura berezia jarriko da eta pisu libreen aukera zabala izango da, barra olinpikoak eta 2 kg-tik 42 kg-ra bitarteko mankuernak barne.

Prensa oharra

Nota de prensa



Gune aerobikoak 48 makina izango ditu, hala nola, eliptikoak, zintak, eski-simulagailua, eskailera amaigabea, bizikletak, etab.

Etxadi kiroldegia

Etxadin gimnasioaren azalera handitu egingo da, 170m² izango du orain, eta eremu guztiak berrituko dira: pisu librea, indar gidatuko lana, funtzionala eta kardiobaskularra.. Indar gidatuko eremuan, muskulu-talde guztiak lantzeko 9 makina berri instalatuko dira: bizeps, kuadrizeps, deltoide, abdominal eta abar. Gune kardiobaskularrean, 19 makina jarriko dira.

Intxaurrondo kiroldegia

Kiroldegi honetan ere berrikuntza integrala izango da (268m²): pisu libreko gunea, indar gidatua, kardiobaskularra eta funtzionala. Indar gidatuko zonaren kasuan, 10 makina instalatuko dira, eta kardio eremuan, berriz, 25 makina. Entrenamendu funtzionaleko guneak TRXa, eraztunak, horma-bularrak eta abar dituzten egiturak izango ditu.

Gimnasio horien ekipamendua renting formularen bidez kontratatuko dira, inbertsioa zuzenean egin beharrean. Horrek hobekuntza handiak ekarriko ditu makinen mantentze-lanetan eta eguneratzean. Gainera, kontratu honek bost urteko iraupena izango du, eta horien amaieran gimnasioa guztiz berrituko da.

Datozen 5 urteetan, 462.000 € bideratuko dira renting horretara.